

2021  2026

LANEKO SEGURITASUN ETA
OSASUNERAKO EUSKAL
ESTRATEGIA



KUDEAKETA PLANA 2022

Kudeaketa plana 2022



Barakaldo, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Izenburua: Plan de Gestión 2022 / 2022ko Kudeaketa Plana.

Argitaraldia: 1.a, 2022ko maiatza.

Ale-kopurua: 30 ale.

Egilea: OSALAN- Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

© Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Argitaratzailea: OSALAN- Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Dinamita Bidea z.g.- 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Imprenta Garcinuño, S.L.

Ctra. San Vicente, 13, 48510 Valle de Trápaga-Trapagaran (Bizkaia)

Lege-gordailua: LG BI 00755-2022

AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	7
1. ARDATZA: KULTURA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA, EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURAL GISA.....	9
1. HE: Laneko segurtasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena a.....	9
2. HE. LAPean kontzientziatuago dagoen kolektibo autonomoa.....	10
2. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA. LAP, ERAKUNDEEN (ENPRESA PRIBATUAK ETA PUBLIKOAK, ADMINISTRAZIOAK) BIKAINASUNAREN EZAUGARRI GISA, ENPRESA-SARE JASANGARRIA, MODERNOA ETA LEHIAKORRA FINKATZEKO.....	11
3. HE. Enpresak erresilienteak dira, eta osasun krisi eta larrialdi-egoerei aurre egiteko gaitasuna dute.....	11
4. HE. Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAP eredia dute	11
5. HE. Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murriztu dira.....	13
3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZAK LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN DUEN BALIOA NABARMENTZEN DUTE.....	17
6. HE. Botere publikoek legeak egiten dituzte euskal administrazioaren eskumenen barruan, dauden arauak berrikusten dituzte eta haien hobekuntza sustatzen dute, betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute.....	17
7. HE. Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartzen dira.....	18

8. HE. Laneko arriskuak prebenitzeko egungo ereduan (pertsone autonomoak, plataformak, etxeko lana) txertatzeko zailtasunak dituzten lan-moduen azpian dauden kolektiboen lan-baldintzak eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetu dira	20
9. HE. Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero-ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klima aldaketa).....	20
10. HE. Informazio- eta adierazle-sistema egokiak ezartzen dira, datuak modu sistematikoan bildu, aztertu eta eragilei eta gizaritari itzultzeko, osasuna prebenitu eta babesteko beharrezko neurriak ebaluatu eta planifikatzeko, genero-ikuspegia eta beste gizarte-determinatzaile batzuk kontuan hartuta, betiere genero-ikuspegia eta beste gizarte-ezaugarri batzuk kontuan hartuz	22
11. HE. Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko akordioak lortu dira, hitzarmen kolektiboetan jasotzen direnak.....	22
12. HE. Gizarte-eragileekiko elkarrizketa indartu eta sendotu da, LAParen kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizarte determinatzaileak barneratzen dituen a	22

Aurkezpena



Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Lan eta Enplegu Sailari atxikitako Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa den aldetik, eginkizun du Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan ezartzen dituzten politikak kudeatzea. Hori horrela, OSALANen 2022ko Kudeaketa Plana hiru ardatzen inguruan egituratzen da: 1 Kultura: LAP, euskal gizartearen kultura-ezaugarri gisa; 2: Prebentzio-kudeaketa sendoa eta kalitatezkoa: LAP, erakundeen bikaintasunaren ezaugarri gisa; eta 3 Gobernantza: botere publikoek gobernantzak Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren duen balioa nabarmentzen dute.

Era berean, ardatz horiek 12 helburu estrategikotan hedatzen dira. Helburu horiek, bestalde, 76 ekintza aurreikusten dituzte, eta hori guztia bat dator OSALANen Kontseilu Nagusiak 2021eko abenduaren 13an onartutako 2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiarekin.

Horrekin guztiarekin, laneko arriskuen prebentzioa hobetzen lagunduko duten eta langileen osasuna babestuko duten ekintzak planifikatu nahi dira, planteatzen dituzten erroek aurre egin ahal izateko; esate baterako, pandemiak eragindako arrisku psikosozialeko faktoreekiko esposizio handiagoa, telelanaren gorakada, digitalizazioa edo robotizazioa eta adimen artifiziala.

Laburbilduz, 2022ko Kudeaketa Planaren lehentasunezko ildoak honako hauek dira: pertsonak erdigunean kokatzea eta desberdintasunak sortzen dituzten gizarte-determinatzaileei arreta ematea, adibidez, lan-arriskuen prebentzioa ezartzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboen alde jardunez (mikroETEak, langile autonomoak, ostalaritza, merkataritza, etab.); genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentziora txertatuz; adinaren, pertsonaren eta langileen beste faktore batzuen ondorioz sor daitezkeen desberdintasunak murriztuz; eta laneko segurtasunaren arloko agente eta faktore guztiak integratuz. Hori da Plan honekin markatu nahi dugun ibilbidea.

Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

OSALANen 2022ko Kudeaketa-Planerako proposatutako ekintzak

1. ARDATZA: KULTURA. LAP EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURAL GISA

1. HE. Laneko segurtasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
1.1	<p>Laneko arriskuen prebentzioaren kultura sustatzea eragileen artean eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak (OSALAN) ardatz dituen balioak gizartean proiektatzea, jarrera seguruak eta lan-inguru osasuntsuak sustatze aldera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Laneko segurtasuna eta osasuna sustatuz, komunikabideen bitartez.• Laneko segurtasuna eta osasuna bultzatzeko publizitate-kanpainak garatuz.• OSALANek Interneten duen presentzia eta sare sozialen bidez herritarrekin duen interakzioa sustatuz.• Gizarteari galdetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruz zer dakien finkatzeko eta hobetzeko.
1.2	<p>OSALANen Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko XII. Ikastaroa antolatzea, EHUko Udako Unibertsitateak eskaintzen dituen ikastaroen barruan. «Laneko arriskuen prebentzioari lotuta egon diren aurrerapenak».</p>
1.3	<p>Laneko arriskuen prebentzioaren kultura sendotzea irakaskuntza-zikloetan.</p> <ul style="list-style-type: none">• Gaztepreben espazioa mantentzea.• ADI proiektua bultzatzea.
1.4	<p>Laneko segurtasun eta osasunari buruzko argitalpenak egin eta hedatzea, eta herritar guztiengana helaraztea (langileak, enpresak, prebentzio-zerbitzuak, gizarte-eragileak, prestakuntza-entitateak...).</p>



2. HE. LAPean kontzientziatuago dagoen kolektibo autonomoa	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
2.1	<p>Autonomoei dagokienez, laneko arriskuen prebentzioaren kultura sustatzea eragileen artean eta OSALANek ardatz dituen balioak gizartean proiektatzea, jarrera seguruak eta lan-inguru osasuntsuak sustatze aldera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Laneko segurtasuna eta osasuna sustatuz, komunikabideen bitartez.• Laneko segurtasuna eta osasuna bultzatzeko publizitate-kanpainak garatuz.• OSALANek Interneten duen presentzia eta sare sozialen bidez herritarrekin duen interakzioa sustatuz.• Gizarteari galdetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruz zer dakien finkatzeko eta hobetzeko, eta galderen artean autonomoak identifikatzen dituzten aldagaiak sartzea.• 2022. urtean zehar, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin harremanetan jarriko da eta galde-sorta diseinatzen hasiko da.



2. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA. LAP, ERAKUNDEEN (ENPRESA PRIBATUAK ETA PUBLIKOAK, ADMINISTRAZIOAK) BIKANTASUNAREN EZAUGARRI GISA, ENPRESA-SARE JASANGARRIA, MODERNOA ETA LEHIAKORRA FINKATZEKO

3. HE. Enpresak erresilienteak dira, eta osasun krisi eta larrialdi-egoerei aurre egiteko gaitasuna dute

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
3.1	<p>COVID-19arekin lotuta OSALANek egindako ekintzak.</p> <ul style="list-style-type: none">• Osasun-arloak koordinatutako eta OSALANek betearazitako jardueren berri emango da Kontseilu Nagusian.• Pandemiari buruzko informazioa eta lana berrikustea eta aztertzea.

4. HE. Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAP eredia dute

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
4.1	<p>Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko dibulgazioko ekintzak eta materiala garatzea. Telelanak generoari lotuta dakartzan arriskuak aztertzea.</p>
4.2	<p>Eraikuntzaren sektorean jardueren koordinazioa hobetzea, egiten ari diren obretako segurtasun eta osasuneko koordinatzaileekin topaguneak egin daitezen bultzatuz.</p>



4. HE. Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAP eredia dute	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
4.3	<p>Prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren kalitatea sustatzeko kanpaina:</p> <ul style="list-style-type: none">• Plangintza eta zaintza kolektiborako gomendioak jasotzen dituen gida egitea.• Banakako zaintzarako gomendioak ezartzea. Bereziki sentikorra den langilearen egokimenaren kontzeptua eta lanpostuaren egokitzea.
4.4	<p>Laneko arriskuen prebentzioa bultzatzea lehen sektorean.</p> <p>“2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala” E-PREBEN-EuskadiPreben garatzen laguntzea.</p> <ul style="list-style-type: none">• Basogintzako jardueran arriskuak murriztea:<ul style="list-style-type: none">- Alerta-sistemaren bidez antzeman diren lan-istripuen ikerketa kualitatiboa egitea (5.6 ekintza).- Prebentzio-neurriak egiaztatzea.- Egokiak diren jakiteko jarraipena egitea.- Prebentzio-neurrien «fitxa-ereduak» zabaltzea.• Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin batera prestatzea «Tu vida, sin vuelcos» izeneko kanpaina.• Arabako nekazaritza-sektoreko enpresetan osasuna nola zaintzen den aztertzea.
4.5	<p>Enpresan prebentzioa kudeatzeko eredu bat pentsatu eta garatuko duen talde teknikoa sortzea. Beste tamaina batzuk dituzten enpresetan gaur egun erabiltzen den eredia aztertzea: AMIA eta proposamenak.</p>

5. HE. Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murriztu dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
5.1	<p>Gaixotasun profesionalaren susmoaren informazio-sistema, Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE) prebentzio-zerbitzuetako lehen mailako arreta eta arreta espezializatua emateko zerbitzuek eta osasun-zerbitzuek lanean gertatu ahal izan diren gaixotasunen berri eman dezaten.</p> <ul style="list-style-type: none"> • OSALANeko Kontseilu Nagusian bilera bat egingo da informazio-sistemen berri emateko gizarte-eragilei.
5.2	<p>OSALANen eskumen-eremuko laneko istripuak ikertzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laneko istripu hilgarri guztiak ikertzea (ez-traumatikoak barne, horiek sor ditzaketen arrisku-faktoreak kontuan hartuta), bai eta istripu oso larriak, larriak eta biktima ugarikoak. • Laneko istripu arin guztiak ikertzea, baldin eta prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jotzen badira.
5.3	Agerraldien zaintza epidemiologikoa , alertak eta kasu-multzoak (klusterrak).
5.4	Esposizioaren eta ondorioen arteko erlazioari buruzko aholkularitza-txostenak .
5.5	<p>Zaintza Postokupazionalerako jarduerak prestatu eta kudeatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Amiantoaren esposiziopean egon daitezkeen langileen fitxategia kudeatu eta eguneratzea, osasun-zaintza postokupazionalerako, eta amiantoaren esposiziopean egon daitezkeen langileen fitxategia mantentzea, beren lan-bizitzan zehar amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren langileen osasuna zaintzen laguntzeko. • Silizearen esposiziopean dauden langileen fitxategi bat martxan jartzeko prozedura diseinatzea.



5. HE. Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murriztu dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
5.6	<p>Lesio larrienak eta maizen gertatzen direnak eragiten dituzten laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko osasun-kalteak ikertzeko eta horietan esku hartzeko lanean aurrera egitea, alerta-sistema batez lagunduta:</p> <ul style="list-style-type: none">• Laneko istripuak:<ul style="list-style-type: none">- Altueretatik erortzea.- Nekazaritzako makinak iraultzea.- Makina batek harrapatzea edo makinaren artean harrapatuta geratzea.• Gaixotasun profesionalak:<ul style="list-style-type: none">- Jatorria lanean duten tumoreak.- Lanak eragindako asma.• Laneko istripuak eta Gaixotasun profesionalak:<ul style="list-style-type: none">- Sorbaldako lesioak. <p>Arestian aipatu arrazoiengatik istripu-tasa altua izan duten enpresen jarraipena egitea.</p>
5.7	<p>Nahasmendu muskuloeskeletikoei eta sorbaldako patologiei lotuta istripu-tasa eta gaixotasun profesionalen tasa altuak dituzten enpresetako Ergonomia eta Osasunaren Zaintza arloetan batera esku hartzea. Horrela, alderdi horiei lotutako lan-baldintzak hobetuko dira.</p>
5.8	<p>Lanak eragindako minbizia prebenitzea eta zaintzea, bereziki, mesotelioma, sudur-barrunbeetako eta sinu paranasaletako adenokartzinoma, eta gibleko angiosarkoma. Txanda-sistemaren eta minbiziaren egoera aztertzea.</p> <ul style="list-style-type: none">• Minbiziari eta txanda-sistemari buruzko azterketa bibliografikoa egitea eta hedatzea.• Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea.
5.9	<p>Arrisku psikosozialei lotutako prestakuntza/informazio materiala eta ekintzak garatzea:</p> <ul style="list-style-type: none">• PSIKOPREBEN web-espazioa indarrean mantentzea, informazio/prestakuntzako materiala eta edukiak garatuz.• Laneko Psikosoziologiari buruzko XII. Jardunaldiak antolatzea. Metodologia kualitatiboek heldutzea.

5. HE. Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murriztu dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
5.10	<p>Arrisku psikosozialen gaineko laguntza eta aholkularitza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aholkuak emateko kanpainak: Telelana Bizkaian; Arrisku psikosozialen prebentzioa Bizkaiko industriaren sektorean; Arrisku psikosozialen prebentzioa 3 lurraldeetako eraikuntzaren sektorean. • Laneko eta Justiziako Agintaritzen eskariei/errekerimenduei erantzutea. • Arrisku psikosozialak ebaluatzeko gida bat egitea, metodologia kualitatiboak oinarritzat hartuta. • Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin batera prestatzea arrisku psikosozialen ebaluazio kualitatiboa egiteko baliabideei buruzko dokumentu bat.
5.11	<p>Osasuna sustatzeko programak egin eta garatzea: adina eta lana, osasun mentala eta lan-baldintzak, mendekotasunen prebentzioa enpresan. «Adina eta lana» gida argitaratzea. Diskriminazioa eta Jazarpen Moralaren Euskal Behatokiarekin, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Ergonomiaren Espainiako Elkartearekin lankidetzan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa osasungarria bultzatzeko lanean aurrera egitea: hobekuntzak bultzatzea, erakundearen aldaketak egiteko teorietan eta metodoetan oinarritzen diren prozesuak erabiliz.
5.12	Langile guztien prebentzioa sustatzea, arrisku kimikoaren aurrean, eta osasunaren gaineko ondorio negatiboak murriztea.
5.13	Enpresei, langileei, ordezkarietara eta prebentzio-erakundeetara aholku ematea eta OSALANen eskumenen inguruan laguntza tekniko behar dutenean erantzutea.
5.14	<p>Eraikuntzaren sektorean altueretatik erortzeko arriskuak murriztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Estalkiak konpontzeko eta horien mantentze-lanak egiteko obretara bisitak eginez. • Honako hauek azpimarratuz: aldamioren segurtasuna, estalkietako lanetan erabiltzeko babes-baliabideak eta prebentzio-baliabidea egotea. • Arrisku horren ondorioz istripu-tasa altua duten enpresa txikietan jardunez.
5.15	Laneko arriskuen prebentzioa gainbegiratzea enpresen lantokietan; zehazki, lantokia ireki duten horietan.



5. HE. Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murriztu dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
5.16	Osasuna zaintzeko protokoloak egin, berrikusi eta hedatzea.
5.17	Lan-munduan bide-segurtasunaren kultura sustatzea eta laneko bide-arriskuak murrizten lagun dezaketen ekintza berriak garatzeko erreferente eta erabilgarri izan daitezkeen tresnak identifikatu eta egitea. <ul style="list-style-type: none">• INNOVABIDE programan parte hartzea, "EAEko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plan Estrategikoaren (2021-2025)" esparruan.
5.18	OSALANeko Higiene-laborategiaren bidez zerbitzuak ematea: <ul style="list-style-type: none">• Neurketa analitikoak egitea.
5.19	Euskadiko Udalei aholkularitza ematea amiantoaren duten materialak kudeatu eta tratatzeko moduari buruz. <ul style="list-style-type: none">• Tresnak egin eta udalen esku jartzea, udalerrietan egiten diren obretan amiantoaren presentzia antzemateko.• Obretan amiantoaren presentzia antzemateko ikastaro aditu bat egitea, udal-teknikariei zuzenduta, eta ikastaro hori udalen esku jartzea.• Udalekin lankidetzan aritzea, GeoEuskadi aplikazioan amiantoaren geolokalizazioa ezartzeko, eta horri lotutako aholkuak ematea.• Erakundeak elkarlanean aritzea amiantoaren duten materialak bildu eta Garbiguneetara eramateko.

3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEK GOBERNANTZAK LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN DUEN BALIOA NABARMENTZEN DUTE

6. HE. Botere publikoek legeak egiten dituzte euskal administrazioaren eskumenen barruan, dauden arauak berrikusten dituzte eta haien hobekuntza sustatzen dute, betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
6.1	Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren eta osasun-zerbitzuen fitxategia garatu eta ezartzea, bai eta auditoretza-erakunde espezializatuena ere.
6.2	Laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzen laguntza teknikoko eskariak eta laneko ikuskaritzarenak artatzea.
6.3	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin lankidetzan aritzea, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek 2006/42/CE makinen segurtasunari buruzko zuzentaraua betetzen duten kontrolatzeko, horretarako dagoen protokoloa garatuz. <ul style="list-style-type: none">• OSALANek Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzenaritzari (lehen Administrazio eta Segurtasun Industrialeko Zuzendaritza) abisuak egiteko zirkuitua: indarrean dagoen hitzarmenarekin bat eginez.• Arrisku-egoera bat eragiteko behar besteko akatsak dituzten makinen berri ematea. Helburua: neurri egokiak ezartzea (industriak erantzukizunak egozte).
6.4	Amiantoa duten materialak erretiratzeko lan-planen kontrola egitea, Lan Agintaritzaren eskariz. Koordinazioa ezartzea lan-agintaritzarekin eta laneko eta gizarte-segurantzako ikuskaritzarekin.
6.5	Kanpoko prebentzio-zerbitzuek ziurtapen-baldintzak betetzen dituztela eta Prebentzio Zerbitzu Mankomunatu en eratzek kontrolatzea, bai eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren gaineko auditoria egin nahi duten entitateak, Lan Agintaritzaren eskariz.



6. HE. Botere publikoek legeak egiten dituzte euskal administrazioaren eskumenen barruan, dauden arauak berrikusten dituzte eta haien hobekuntza sustatzen dute, betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
6.6	Osasun-baimenen eta prebentzio-zerbitzuen kontrolaren arloko eskumenak gauzatzea, baita arau-haustea proposatzeko eskumena ere.
6.7	Arreta egitea OSALANen jasotako salaketa hauei: Laneko Osasuneko Unitatearen eskumen-esparruari buruzkoak, unitate hori baita prebentzio-zerbitzuetako osasun-agintaritza.

7. HE. Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartzen dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
7.1	Organo eskudunekin lankidetzako jarduerak garatzea, xede izanik herri-lanetan eta azpiegitura handietako zereginetan laneko arriskuen prebentzioa txerta dadin bultzatzea.
7.2	“2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia hedatzea” . <ul style="list-style-type: none">• Batzordea eta Jarraipen Batzordea eratzea.• 2022-2023 Ekintza Plana onartzea.
7.3	Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea , OSALANeko Kudeaketa Planeko ekintzak garatzeko arauen proposamenak eta oinarrizko irizpideak ezartzeko: Araudiaren garapena, lantaldeetako partaidetza, gaixotasun profesionalen susmoa, Euskadiko Osasun Plana, Euskadiko Onkologia Plana 2018-2023.
7.4	Emakunderekin sinatutako hitzarmena garatzea, baterako ekintzak egiteko, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatze aldera.
7.5	Jarraipena eta ebaluazioa egitea OSALANentzat interesgarriak izan daitezkeen edo OSALANen ezagutza jasotzeko interesa izan dezaketen lantaldeei eta erakundeen arteko batzordeei dagokienez .
7.6	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin lankidetzan jardutea, Desgaitasunak Baloratzeko Taldeen bileretan parte hartuz.

3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZAK LANEKO SEGURTASUNEAN
ETA OSASUNEAN DUEN BALIOA NABARMENTZEN DUTE

7. HE. Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneo segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartzen dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
7.7	“Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta OSALAN-Laneoko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen arteko hitzarmena, lanean amiantoa erabili izanagatik patologiak dauzkaten langileen aurrean elkarrekin jardutekoa”. Hori dela eta, sinatutako hitzarmena OSALANek garatuko du eta haren jarraipena egingo du.
7.8	OSALANen 2022ko Kudeaketa Plana egin eta hedatzea, bai eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea ere, eta emaitzak kasuan kasuko jardueren memorian argitaratzea.
7.9	OSALANeko artxiboak eta dokumentuak kudeatzeko EAEko administrazio orokor eta instituzionaleko artxiboko sistemara egokitzea .
7.10	Aurrekontuaren betearazpen-mailaren jarraipena egitea.
7.11	OSALANen zerbitzuak eta prozesuak hobetzea.
7.12	OSALANen “Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2022-2024)” bete dadila sustatzea eta haren jarraipena egitea.
7.13	OSALANen “Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana” sustatzea eta haren jarraipena egitea.
7.14	Arau, kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen jarraipen juridikoa egitea.
7.15	Osasun Publikoaren Zuzendaritzarekin komunikatzeko bide bat sortuko da, lankidetzan hori behar duten ekintza guztiak (batez ere 5. HE eta 10. HE) koordinatuta gauzatu daitezkeen: <ul style="list-style-type: none"> • Gaixotasun profesionalei buruzko susmoen jarraipen-batzordea. • Koordinatuta lan egitea zaintza epidemiologikoko sarearekin eta osasun publikoaren zaintza sarearekin. • Koordinatuta lan egitea lanak eragindako minbizioa aztertzeko. • Osasuna sustatzeko jarduerak eta programak. • Lan-osasunari buruzko informazio-sistemak eta osasun publikoaren zaintzeko sarea koordinatzeko bidea bilatzea. • Jarduera bateratuak garatzean ager daitezkeen bestelako ekintzak.



8. HE. Laneko arriskuak prebenitzeko egungo ereduan (pertsone autonomoak, plataformak, etxeko lana) txertatzeko zailtasunak dituzten lan-moduen azpian dauden kolektiboen lan-baldintzak eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetu dira

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
8.1	Prebentzioa sustatzea autonomoen artean: <ul style="list-style-type: none">• Prestakuntza-ekintzak• Dibulgazio-ekintzak• Legeria hobetzeko azterketak• Dirulaguntzak

9. HE. Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero-ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klimateko aldaketa).

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
9.1	Laneko segurtasun eta osasunari buruzko mezuak zabaltzea enpresari, gizarte-eragile, elkarte, erakunde espezializatu eta abarrekin egindako topagune eta ekitaldietan .
9.2	Laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutza sustatzea, laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko alderdi interesgarriei buruzko informazio eta prestakuntzako ekitaldiak (ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak eta abar) antolatuz.
9.3	OSALANen 2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa garatzea.
9.4	Europako SAF€RA taldeko kide moduan laguntzea.
9.5	Laneko osasunaren arloan lan egiten duten osasun-langileentzako prestakuntza sustatzea.
9.6	Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileei zuzendutako prestakuntza eman eta sustatzea, diseinatutako planaren arabera Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarekin elkarlanean.
9.7	Osakidetzako osasun-langileentzako laneko osasuneko prestakuntza erraztu eta sustatzea.

3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZAK LANEN SEGURTASUNEA
ETA OSASUNEA DUEEN BALIOA NABARMENTZEN DUTE

9. HE. Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, genero-ikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzekeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klima aldaketa).	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
9.8	Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko barneko mediku egoiliarren/barneko erizain egoiliarren prestakuntza lankidetzan aritza, OSALANen txandakatzearen bidez (Osakidetzako Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitatearekin adostutako hitzarmena).
9.9	EHUarekin lankidetzan aritza Erizaintzako Gradu ko ikasleei prestakuntza emateko.
9.10	Sindikatuarekin batera, prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza kudeatzea.
9.11	Unibertsitatearekin lankidetzan aritza, ikasleei prestakuntza emanaz, EHUko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Masterrean .
9.12	Prebentzio-zerbitzuetako teknikariei zuzendutako prestakuntza -plan baten plangintza egitea eta betetzea, prebentzio-zerbitzuek ere parte hartuta.
9.13	Trenbide-gainegiturak eraikitzean sortzen diren lan arriskuak prebenitzeko gidaliburua II. atala prestatzea
9.14	Industria 4.Oren arloko laneko arriskuak prebenitzea. <ul style="list-style-type: none"> • Irizpide teknikoak eta legezkoak ezartzea, egungo “iraultza” teknologikoari lagundu ahal izateko, segurtasuneko estandarrak ahaztu gabe. • OSALANen irizpideak hedatzea, jardunaldi tekniko, liburuxka, web, prentsa eta abarren bidez.
9.15	Kantauri itsasoko ertzeko autonomia-erkidegoekin batera prebentzio-baliabidearen eskuliburua berrikustea.
9.16	Barneko prestakuntza-plana egin eta betearaztea. Barne-komunikazioa sustatzea.
9.17	Lanbide-heziketari lotuta (lanbide-arriskuak prebenitzeko teknikariak) prestakuntza praktikoa emateko lankidetzak bidez ezartzea.



10. HE. Informazio- eta adierazle-sistema egokiak ezartzen dira, datuak modu sistematikoan bildu, aztertu eta eragileei eta gizarteari itzultzeko, osasuna prebenitu eta babesteko beharrezko neurriak ebaluatu eta planifikatzeko, genero-ikuspegia eta beste gizarte-determinatzaile batzuk kontuan hartuta

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
10.1	Prebentzio-zerbitzuen Datuen Gutxieneko Multzoan (GDM) oinarrituta, laneko osasunari buruzko informazio-sistema ezartzea. Xedea: Langileen esposizioaren mapa eta kalteen mapa eskuratzea.
10.2	Laneko historia klinikoa homogeneizatzeko datuen azterketa.
10.3	EAEko ezbehar-kopuruari eta gaixotasun profesionali buruzko urteroko txostenak prestatu eta hedatzea.
10.4	Sistema -plana osatzen duten aplikazioak garatzea.

11. HE. Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko akordioak lortu dira, hitzarmen kolektiboetan jasotzen direnak

12. HE. Gizarte-eragileekiko elkarrizketa indartu eta sendotu da, LAParen kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizarte determinatzaileak barneratzen dituen

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
12.1	Gizarte-eragileekin batera, OSALANen Kudeaketa Planaren jarraipena egitea horretarako sortutako Kontseilu Nagusiaren batzorde espezifikoa bileretan, eta haren ekarpenak jasotzea.
12.2	OSALANeko Kontseilu Nagusiaren ondorioz sortu den Prestakuntzarako Batzorde Delegatuaren bilerak egitea gizarte-eragileekin, ezarritako maiztasunaz eta ekarpenak eginez.





Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



ZERBITZU ZENTRALAK

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

José Atxotegi, 1
01009 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. +34 944 032 190

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo Bidea, z.g.
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 944 032 190

www.osalan.euskadi.eus